

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

60/2017 Foru Gobernu Kontseiluaren Foru Dekretua, abenduaren 26koa. Onartzea Gazteriaren Foru Erakundeak sustatutako ikastetxeen programei 2018an aplikatu beharreko kuotak

Tasa eta prezio publikoei buruzko azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauak (ALHAO 147 zenbakia, 1989/12/22koa) 26.1 artikuluan ezarri zuenez, Diputatuen Kontseiluaren eskumena da erabiltzaileei ematen zaizkien zerbitzuengatik eskatu behar zaien prezioa finkatzea eta aldatzea, eta horien artean sartzan dira Gazteriaren Foru Erakundeak eskaintzen dituenak.

Aurretik azaldutako guztia kontuan hartuz, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2018 urtean sustatuko dituen ikastetxeen jarduerari dagozkion prezio publikoen proposamen bat gertatu du.

Horiek horrela, Ekonomia Jardueren eta Deszentralizatutako Zerbitzu Juridikoen Jarduerari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak 7. artikuluan xedatutakoaren harira Arabako Foru Aldundiaren.

Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu, eta Kontuhartzaitza Zerbitzuaren ezinbesteko eta alde aurretiko txostena eskatu da.

Horregatik guztiagatik, Euskera, Kultura eta Kirolen Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gazteriaren Foru Erakundeak 2018an bultzatu dituen ikastetxeen ekintzengatik ordaindu beharreko eranskin ageri kuotak onartzea.

Bigarrena. Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendariari ahalmena ematea dekretu honetan jasotzen ez dena ebazteko.

Hirugarrena: Honako ebazpen hau ALHAO argitaratzea, 2018ko urtarrilaren batetik aurrera legezko eragina izan dezan.

Gasteiz, 2017ko abenduaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua

IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

Foru Dekretuaren eranskina

IKASTETXEEN JARDUERAK	
IKASGELAK	
2018	
MODALITATEA	KUOTA EUROTAN
A: 4 egun + bazkaria	99,00
B: 2 egun + bazkaria	57,00
ARABAZ BLAI	
Modalitate bakarra: 2 egun + bazkaria	
	KUOTA EUROTAN
Urtarriletik ekainera (2017-2018 ikastaroa)	57,00
Irailetik abendura (2018-2019 ikastaroa)	58,00
ECO SCHOOL / THIS IS NOT AN ENGLISH CLASS	
Modalitate bakarra: 2 egun + bazkaria	
	KUOTA EUROTAN
Urtarriletik ekainera (2017-2018 ikastaroa)	84,00
Irailetik abendura (2018-2019 ikastaroa)	85,00